



BEHARGINTZA

Behar Hitzza



Leloaako
Behargintza

2014ko, 01º

BEHARGINTZA

Behar Hitza



AURKEZPENA

Ikusi duzu gure
Prestakuntza Eskaintza
berria?

Enplegu eta Tokiko Garapenerako Zentroa

Alameda 11, PO. 40140 - Leioa
Telefonoa: 94 400 40 41 - Fax: 94 400 25 11
www.leioako-behargintza.net
behargintza@leioa.net

SALAS:

Orientazioa

behargintza.orientazioa@leioa.net

Prezibakuntza

behargintza.enplegua@leioa.net

Enpresa

behargintza.enpresa@leioa.net

Elektroniketa

behargintza.etiketa@leioa.net

2013ko Abendua



www.leioako-behargintza.net



2014ko helburuak

Duela gutxi, udalerriko industria-enpresei deialdia bidali diegu Meatzaldeko Tokiko Garapen Agentziak, Ortuellan antolatutako jardunaldian parte hartzeko. Horren helburua da kontaktu berriak sustatzea, harreman berriak sustatzeko, eta horrela, produktua edo prozesua hobetu, merkatu berriak identifikatu, etab. Azken baten, pertsonak identifikatzea egiten duguna, nola egiten dugun eta norentzat egiten dugun hobetzeko.

Enpresek izaten duten zailtasun handienetariko bat, batez ere txikiek, enpresa ezagutzera eman behar dutela da. Uste dute munduak ez dituela ezagutzen eta eskura dituzten baliabideen bila ibiltzen dira. Baina arazoa da nola egin.

Innobasque edo Meatzaldea bezalako entitateek antolatutako jardunaldiak, edo Leioako Behargintzak aurretik antolatutakoek, xede hau dute: ezagutzera eman eta denen arteko harremanak ezartzea, denon artean, etorkizunean, sinergiak aurkitzeko.

2014 honetan, kalera ateratzeko helburuarekin gaude. Ezagutzera emean eta elkar ezagutu, hobeto. Horrela, banan-banan, zuen beharrian eta zailtasunak ezagutu nahi ditugu, eta agian modu horretan, Leioakoak ez badira ere, zuen intereseko eragileak identifikatzen lagundu ahal izango dizuegu beste bitartekaritza agentzia batzuen bidez.

Gainera, gogoratu gu beti prest izango gaituzuela zuen lan eskaerei erantzuten laguntzeko. Behargintzan, doaneko prozedura dugu zuen enpresentzat, epe laburrean, eskatzen dituzuen profil profesionaletarako pertsonarik egokienak identifika ditzazuen.

Ba al zenekien....?

Ikerketa teknologikorako deialdi berriak argitaratu ditu dagoeneko Eusko Jaurlaritzak.

- **ETORGAI:** EAEn estrategikoak diren ikerketa industrialerako eta garapen esperimentalerako proiektu integratuak egiteko laguntzak.
- **NET:** oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresa berriak sortzeko.
- **GAITEK:** oinarri zientifiko eta teknologikoa duten produktu berriak garatzeko xedea duten proiektuak burutzeko laguntzak.



2014ko JOERAK

Leioako Behargintzako ekintzailetza arloak udalerriko sustapen ekonomikoaren alde lan egiten du enpresa berriak martxan jartzeko laguntza emanez, ikuspegi berritzaileak sustatuz.

Proiektu berriek aintzat hartu beharreko faktore-gakoetariko bat da enpresaren kokapena, batez ere lehen urteetan. Hori dela-eta, Leioako Behargintzako enpresen udal mintegian (Ibaiondo plaza 1) egoteko aukera eskaintzen die espazio beharrianak lokalen eskaintzarekin bat datozen proiektuei.

Mintegiaren helburua da enpresa berriei laguntzea kokapena emanez, eta existitzen direnei, zabaltzeko aukera eskainiz. Horrela, udalerrian, enplegua eta aberastasuna sor daiteke.

Mintegia aldi baterako pentsatuta dago, enpresei euren lehenengo urteetan laguntzeko helburua baitauka, merkatuan arrakasta izateko aukera gehiago izan dezaten. Horregatik irekiko da berriro moduluetara sartzeko deialdia, ekintzaileen eskaerari erantzuten saiatuz.

Mintegiaren oinarri berriak otsailaren 3an argitaratuko dira. Egun horretan bertan hasiko da eskabideak aurkezteko epea, otsailaren 28ra arte irekita egongo dena. Balorazioa, aurkeztutako proiektuen ikuspegi berritzailean oinarrituko da; hala ere, beste faktore batzuk ere aintzat hartuko dora, oinarri arautzaileetan azaltzen den bezala, **web gunean** kontsultatzeko ikusgai egongo direnak.





MOTIBAZIOA ETA LAN BILAKETAN

Egia da, lana bilatzea ez da erraza. Etengabe ari gara lan esparruko albiste txarrak jasotzen, eta horrela, gure tolerantzia gero eta txikiagoa da eta errazago erortzen gara etsipen edo desmoralizazioan, eta ondorioz, gero eta gutxiago ahalegintzen gara. Jarraian, lan bilaketa eraginkorrerako motibatzekeo garrantzitsuak izan daitezkeen jarraibide batzuk aurkeztuko dizkizuegu:

Jarrera positiboa beti: gauzen alde ona bilatuz lor dezakegu, lehen egin ezin genituen gauzak egitea planteatuz, hala nola, prestakuntza jaso. Modu berean, inportantea da aisialdiko ekintzak planifikatzea, deskonektatu ahal izateko. Eta azkenik, saiatu behar dugu gure elkarrizketak krisi ekonomikoan, langabezian... bakarrik ez zentratzen; eta ez badugu lortzen, gutxienez, ikuspegi optimista eman.

Lan errutina izatea: momentu hauetan, "lana bilatzea da gure lana", hau da, planifikatu egin behar dugu lan hori: ordutegia, epe ertain eta luzerako helburuak, atsedenaldiak bilaketa errazteko, etab.

Helburuak eta horiek planifikatzea: helburuak planifikatuz, beti egongo gara animatutako horiek erdiestera heltzeko prozesuan. Kontrako kasuan, epe luzera, dena ilun ikusiko dugu. Beraz, planifikazioak jarrera positibo eta aktiboa izaten lagunduko digu.

Pertsonen arteko sareak: gure inguruko pertsonak gure egoera ezagutzea, etorkizunean hel daitezkeen enplegu aukeratarako. Modu berean, gurea bezalako egoera daudenak lagundu ahal ditugu, eta alderantziz, eurengandik laguntza jaso. Horrela erabilgarriak garela ikusiko dugu eta ondo sentituko gara.

Prestakuntza: langabezia egoeran gaudenean, aprobe txatu eta eguneratu behar dugu, gure profila birziklatu. Sortzen ari diren sektore berrietara ere zabaltzeak lagunduko digu gure egunerokoan, proposatutako helburuak erdiesten, curriculum a hobetzen, posizionatzen eta sare sozialak sortzen.



2014ko urtarrila eta uztaila bitarteko prestakuntza eskaintza!

Leioako Udalak duen sustapen ekonomikorako estrategiaren barruan, aurten ere, LEIOAKO BEHARGINTZAK prestakuntza eskaintza berria ateratzen du, udara arte iraungo duena. Gaurkoa bezalako momentuan, langabezia ardura nagusia denean leioaztar askorentzat, uste dugu Ikasketa Iraunkorra ezinbestekoa dela gizabanakoentzat, baita eskubidea ere. Halaber, bizitzan zehar gaitasunak hobetzeak bermatu egiten du norberaren errealizazioa, gizartean parte hartzea eta etengabeko eboluzioan dagoen lan-munduan arrakasta izatea.

Hori dela-eta, prestakuntza eskaintza atera dugu aste honetan. Astelehenean, hilak 20, irekitzen da izena emateko epea, eta izena emateko gure bulegoetara etortzeko aukera dago (8:30-14:30, Mendibile 3 helbidean), edo behargintza@leioa.net posta elektronikora idatziz, eta bertara, postontzietara bidaltzen ari garen publizitatean eta web gunean (www.leioako-behargintza.net) aurki daitekeen inprimakia bidali.

Udalerriko enpresa eta pertsonen eskaerari so eginik, 6 orduko hiru ikastaro eskainiko ditugu, Elikagaiak Manipulatzeko oinarrizko prestakuntza emateko. Horrela, zerbitzuen sektorean detektatu den eskaerari erantzuten saiatuko gara (egoitzak, ostalaritza, heziketa zentroak, supermerkatuak eta txikizkako merkataritza).

Enplegu bila edo enplegua hobetzen saiatzen ari diren pertsonen gaitasunak hobetzeak duen garrantzia azpimarratuz, 20 prestakuntza ekintza desberdin diseinatu ditugu. Guztira, 300 plazatik gora eta 400 eskola-ordu baino gehiago eskaintzen dira formatu laburrean: partaideak paper aktiboa dauka, edukiak elkarrekin sortzeko ardurarekin hasieratik.

Bereziki landuko ditugun oinarrizko gaitasun arloak honako hauek dira:

1. IKTK, edo informazio eta komunikazioaren teknologiak, gaur egun informazioa sarean dagoelako, informazio hori eskuratzeko gai izan behar dugulako eta gure beharren arabera erabili. Zentzu horretan, oso oinarrizko mailatik abiatzen diren tailerrak eskaintzen ditugu: alfabetatze informatikotik, aurkezpen grafikoak egiteko programa aurreratuetara, hala nola, Prezi. Hori guztia, partaideen eta euren beharren arabera.

2. Bigarren arloa EMOZIOEN ingurukoa da, krisiak eta aldaketak kudeatzeko oinarrizko abilezia sozialetatik, adimen emozionalaren kudeaketara.

3. Enplegagarritasuna hobetzeko gaitasunen azken blokea lan bila ari den edonork maneiatu behar dituen TRESNEI dagokiena da. Arlo honetan, partaideen beharretara egokituko gara baita ere, honako gai hauek landuz: CV, aurkezpen gutuna, psikoteknikoak, bideo bidezko curriculumak edo enplegurako web baliabideak.

Azkenik, Negozio Ideiak Sortzeko Tailerrak nabarmendu nahi ditugu, ekintzailtza sustatzeko strategiaren barruan. Ekintzailtzak lan bilaketa edo hobekuntza esparrua zabaltzen du, aktibitate edo negozio propioa sortzera bideratzen gaituelako. Aukera ez da bakarrik besteen kontura lan egitea.



HILABETEKO AGENDA

04/02/2014: Getxo. HOOTSUITE: Ikasi erabiltzen zure enpresako sare sozialak kudeatzen lagunduko dizun plataforma.

14/02/2014: Bilbao. Sustatu zure negozioak Inerneten duen presentzia

19/02/2014: Bilbao. Sustatu zure negozioa errealitate handituko teknikaz erabiliz.

21/02/2014: Ortuella. GettingContacts!



DIRULAGUNTZAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren 95/2013 FORU DEKRETUA, uztailaren 9koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita 54/2010 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, Lehiakortasuna Hobetzeko Planaren oinarri arautzaileak eta haren lehenengo deialdia onartzen dituena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 96/2013 FORU DEKRETUA, uztailaren 9koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita 56/2011 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, Lehiakortasuna Hobetzeko Planaren oinarri arautzaileak eta haren lehenengo deialdia onartzen dituena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 198/2013 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2013ko ekainaren 4ko 80/2013 Foru Dekretuaren amaierako bigarren xedapena. Foru Dekretu horren bitartez, Ekintzaitetzako eta Gizarte-Berrikuntzako Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 162/2013 FORU DEKRETUA, azaroaren 25ekoa, Lankidetzeta eta Nazioartekotzeari buruzko Programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onesten dituen otsailaren 28ko 29/2012 Foru Dekretua aldatzen duen azaroaren 13ko 153/2012 Foru Dekretua aldatzen duena.

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 24koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da NETS programaren 2014ko ekitaldiko deialdia, betiere oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak burutzeko laguntza-programa (Nets programa) arautzen duen Aginduan ezarritako esparruaren barruan.


EBAZPENA, 2013ko abenduaren 24koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da Gaitek programaren 2014ko ekitaldiko deialdia, betiere produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa (Gaitek programa) arautzen duen Aginduan ezarritako esparruaren barruan.

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 24koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da Etorgai programaren 2014ko ekitaldiko deialdia, betiere industria ikerketako eta garapen esperimantal estrategikoko proiektu integratuak Euskal Autonomia Erkidegoan egiteko laguntza-programa (Etorgai programa) arautzen duen Aginduan ezarritako esparruaren barruan.



Nor ezagutzen dugu hilabete honetan...?

Nor ezagutzen dugu....? ""Pequeños Tesoros"



1- Zure burua aukez diezaiekezu zu eta zure denda ezagutzen ez dutenei? (Adina, dendaren izena, zein sektoretarako den).

Kaixo, Mariana naiz, 39 urte dauzkat eta iragan irailaren 2an, jostailu eta umeentzako osagarri denda ireki dut Leioan.

2- Egoera ekonomikoa konplikatua da orain. Zerk animatu zintuen zure negozioa irekitzera?

Animatu naiz haurren irakasle naizelako eta esperientzia dudalako publiko aurrean, nire familiak urte asko baitarama bere negozioarekin. Argentinan egon nintzen azken urteetan ere denda ireki nuen, umei zuzendua eta Pequeños Tesoros izenarekin baita ere.

Leioa hautatu dut ekarpen txikia egin dezakedala uste baitut, hau da, bizi naizen herriko merkataritzaren hazkunderan lagundu.

3- Zer proposatuko zenioke bere enpresa ireki ala ez ireki dabilen pertsonari?

Enpresa irekitzea pentsatzen ari den orori esango nioke, lehenengo, ondo aztertzeko merkatuaren beharrak, eta ondoren, konpetentzia, baldin badago.

Hastapenak ez dira batere errazak, baina helburuak argi izanik eta lasaitasuna mantenduz, gauzak errazago izan daitezke.

4- Merkatarari zaren neurrian, zer uste duzu falta dela Leioako merkataritzan? Zer proposatuko zenuke?

Gustatuko litzaidake zonaldeko dendak komunikatuago egotea eta ekimenak prestatzea jendea herrian kontsumitzera erakartzeko.

Ondo legoke Udalak publizitaterako espazio batzuk uztea, ondo ikusteko moduko lekuetan, eta horrela, gure denda aurkeztu edo produktu-promozioak egin. Adibidez: Leioako denda guztiak, irudiak aldatuz, erakusten dituen pantaila Avanzadako bulebarrean. Horrela, hemengoek eta ondoko herrikoek ezagutuko gintuzkete.